

Getxo >MEETING<



Azaroak 29

Zure webgunea aldatu nahi duzu baina horretarako zure negozioaren oinarriak birpentsatu eta berridatzi behar dira aurretik...

Hona hemen saioan esandakoaren laburpena, non gai garrantzitsu bat jorratu baitugu. Zure webgunea egitea (edo berregitea). Inondik inora erraza ez den erronka.

Pertsona guztiek ez dute webgune bat behar, baina negozio-mota jakin batzuetan irudikontua da. Baliteke webgunea izateak ez erakartzea bezerorik. Alabaina, negozio-mota jakin batzuetan webgunerik ez izateak erosleak aldentu ditzake.

Egia esan, jende askok nahikoa izango luke LinkedIn eta Google My Business kontuetan orrialde txukuna eta Gmail helbidea izatearekin. Baina jakin behar duzu bereizten hori zure kasua ote den.

Sarean zure erakusleiko propioa izateko erronkari heltzeko unea heldu bada, pazientzia beharko duzu.

Honako galdera hauek egin beharko dizkiozu zeure buruari (boligrafoa eskura duzunean):

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

Zein da nire xede-taldea? Nolakoa da? Zer behar du?

Zer nahi duzu zehazki zure webgunean egitea? Erostea, informatzea, segurtasuna hartzea, konektatzea...?

Zein hizkerarekin konektatu nahi duzu zure hartzaileekin?

Zeintzuk dira zure helburuak? Nolakoa da etorkizunean irudikatzen duzun zure enpresa? Nola nahi duzu eboluzionatzea?

Hori guztia aintzat hartuta, zure webgunea egiteko norbait kontratatzen duzunean hobeto erantzun ahal izango dituzu berak egindako galderak.

Horrez gain: Getxolanen merkataritza-estrategia fintzen lagundu ahalko dizute. SPRI taldeko Inplantalariak zerbitzuan ekintzaile eta enpresentzako doako aholkularitza eskaintzen dute. Erabili itzazu baliabide horiek.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/promocion-economica

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

